

Olaizagako igerilekua sorosleen grebaren ondorioz itxita edo zerbitzu murritzean egon den denbora-tarteko abonak itzultzea onartu du Udal Kirol Patronatuak

11

En primavera de 2024 comenzarán las obras de construcción del centro de servicios sociales Errezabal

8-9



“Ez dago norbere herriaren alde lan egitea bezelakorik; gogotsu nago aurretik ditugun proiektu guztiak aurrera eramateko”

Entrevista a la alcaldesa Maialen Gurrutxaga sobre sus primeros 100 días en el cargo.





Maialen Gurrutxaga alkateari elkarrizketa bere lehen 100 egunei buruz karguan

“

Ez dago norbere herriaren alde lan egitea bezelakorik; gogotsu nago aurretik ditugun proiektu guztiak aurrera eramateko

Maialen, zer moduz zaude lehen Elgoibarko alkate gisa lehen 100 egunak bete dituzun une honetan?

Egia esan, ondo. Gogotsu eta pozik. Gauza asko dauzkagu egiteko eta hasierako ehun egunok dira horren adierazpenik onena. Garai bizia izan da, erronkaz eta aukeraz betea. Esku artean dauzkagun proiektuak sendotzen eta etorkizunekoak finkatzen ari gara. Herritarren babesak, osatzen dugun udal-taldearen indarrak eta herriko gizarte-eragileengandik jasotako bultzadak neure alkate-konpromisoa indartu baino ez dute egiten. Esan bezala, Oso konprometituta eta ilusionatuta nago Legealdi honen hasierako martxa ikusita.

Nolakoa izan da elgoibartarrekin eta elkarteekin izan duzun lehen hartumana?

Oso aberasgarria izan da. Lehenengo egunetik, nire taldea eta biok Elgoibarko herritarrei eta elkartei entzuten aritu gara. Hainbat kolektiborekin bilerak egin ditugu haien beharrak, kezak eta proposamenak ulertzeko. Jaso dugun harrera eta babesa funtsezkoak izan dira gure lanean eta Legegintzaldiko Planean aurrera egiteko.

Zuen hasiera zonaldeko uholdeekin batera izan zen. Nola heldu zenioten egoera horri lehen egunetik?

Hasiera-hasieratik, larrialdietarako udal dispositiboa aktibatu genuen eta larrialdi zerbitzuekin eta kaltetutako bizilagunekin elkarlanean aritu ginen. Komunitatearen erantzuna ereduagarria izan zen, eta une zailetan Elgoibarren indarra eta elkartasuna erakutsi zigun. Askok ikasi genuen esperientzia horretatik, eta segurtasunarekin eta biztanle guztien ongizatearekin dugun konpromisoa indartzen jarraitzen dugu.

Entzumenean eta konpromisoan oinarritutako ikuspegia hitz eman zenuen. Nola beteko dituzu nahi horiek zure agintaldian?

Bai, ez dago beste biderik, dauzkagun arazoei aurre egin, gure herria sendotzeko proiektuak zehaztu, gizarte eragilean lankidetzaren indartu eta udaletxeko arduradunon konpromisoa sustatu... Horretan ari gara orain, 2023-2027 Legealdi Plana aztertzen, eztabaidatzen eta zehazten. Laster amaituko dugu eta berehala aurkeztuko diegu herritarrei.

Aurreratuko al diguzu zerbait prestatzen ari zareten udal aurrekontuei buruz?

Aurrekontuak oinarritzekoak dira legealdiko asmoak eta proiektuak urtez-urte errealtate bihurtzeko. Burubelari ari gara lanean aurrekontuak zehazten. Herri bezala dauzkagun premiei, erronkei eta ilusioari eraginkortasunez erantzutea da helburua. Errezabal egoitza, King-Kong zubiko proiektua, kirol-azpiegiturak, gizarte-zerbitzuak, berdintasun politikak, gazteria, euskararen gizarte erabilera, anbulategi berria, etab. Denak ere, herritarren beharrei ekitatez erantzuteko proiektuak dira.... Eginkizun asko dauzkagu esku artean eta gure herri izaera eta elgoibartarren bizimodu hobetuko duten gai guztien isladaz izango dira 2024ko aurrekontuak.

Proiektu estrategikoak aipatu dituzu, hala nola Errezabal egoitza, anbulategia eta King Kong zubia berritzea. Zein egoeratan daude proiektu horiek eta zein da haien etorkizuneko ikuspegia?

Asmo eta helburu handiko proiektuak dira. Elgoibarko herriaren nortasuna eta erakargarritasuna eskualde osora zabalduko duten proiektuak. Gure gizarte-zerbitzuen sare-propioa sendotuko duen Errezabal-eko asistentzia-guneak badu bere kronograma eta obrak hasitako kontratua sinatuta dago. Bestal-

de, buru-belarri ari gara lanean Eusko Jaularitzarekin anbulategi berriaren proiektua bideratzeko lanetan, hitzarmena sinatu dugu). King-Kong zubiko berrikuntza-lanak aurrera doaz eta bigarren faseko proiektua ere idatzita dago... Lehen esan dizudan bezala eginkizun asko dauzkagu esku artean. Gu-txi barru aurkeztuko dugu 2023-2027 Legealdi Plana eta 2024ko aurrekontuak esku artean dauzkagun proiektuen adierazpen izango dira.

Gaur egungo anbulatorioak bide emango al die etxebizitza sozialei?

Bai, bai, buru-belarri ari gara lanean Eusko Jaularitzarekin anbulategi berriaren proiektua gauzatzeko lanetan eta, bide horretan goaz, gazteentzako alokairu sozialeko etxebizitzak sortzea da udal-talde honen helburuetako bat. Are gehiago, alokairurako laguntzak eta alokairu babestua sustatzea izan da gure ekimenetako bat eta hala izaten jarraituko du, gazteentzako batez ere, euren bizitza-proiektu propioa garaitzen hasteko aukerak izan ditzaten Elgoibarren bertan.

Mugikortasunak garrantzi berezia izango du legegintzaldi honetan?

Bai. Bai lehen eta bai orain. Adibidez, Herribusaren zerbitzua aztertzen ari gara, zertan hobetu dezakegun ikusteko. Gaueko taxi-zerbitzuarekin ere beste hainbeste. Badakigu herritarrek balorazio positiboa egiten dutela eta bide horretan jarraitu behar dugu, erabilpen kolektiboa eta segurtasuna areagotzeko.

Eta, noski, hor dago King-Kong zubiaren berrikuntza guztia Urazandi auzoko irisgarritasuna hobetzeko, igogailu bat baita ere. Artekalako eskaileren ordez igogailu bat eraikitzeak asmoa ere aurreratzen ari gara. Era berean, landa-bideak hobetzen jarraitzeko asmoarekin batera, Altzolarainoko bide-gorria sortzeko proiektua ere aurreratuta dago, oinezkoentzako pasealeku eta ibilbide berriekin.

Eta enpleguari buruz?

Alkate bezala hau da nire ikuspuntua: elkarlana da horren ardatza. Gure he-

rrian lan-eskaintza sortzeko ahalmena eta gaitasuna daukaten eragile guztiekin sustatu behar dugun elkarlana. Etenik gabeko eginkizuna. Herriko enpresek eta industriagintzako eragileekin, gaur bai eta bihar ere bai, atsedetik gabe zaindu eta bete beharreko eginkizuna. Funtsezkoak dira eragile guztien arteko lankidetzaren eta sinergia, Udala barne, Elgoibarko lan-eskaintzaren jarraitkortasuna sendotu, aukera berriak sortu eta herriko ekonomia sustatzeko.

Zeintzuk dira zure helburuak agintaldiaren lehen urtea amaitu aurretik?

Gure helburu nagusietako bat Elgoibarrerako plan estrategiko bat aurkeztea da, gure kudeaketaren norabidea markatuko duena. Besteak beste, El Pilarreko egoitza berria, anbulatorioan eta King-Kongeko zubiaren berritzean aurrera egin nahi dugu. Gainera, gazte-politikak, gizarte-kohesioa eta mugikortasun iraunkorra indartu nahi ditugu udalerrian.

Eta zeintzuk dira zure helburuak legegintzaldi osorako?

Emandako hitza betetzea eta Elgoibar eta gure egunerokoa hobetzea. Legegintzaldian zehar, Elgoibar inklusiboagoa, iraunkorragoa eta oparagoa eraikitzen jarraitzea da gure helburua. Horren barruan sartzen dira proiektu estrategikoak gauzatzeko, industria-sarea babesteko eta kalitatezko enplegua sortzeko lankidetzaren sustatzea, gazte-politikak bultzatzea, gizarte-kohesioa eta iraunkortasuna sustatzea.

Zein mezu helarazi nahi diezu Elgoibarko herritarrei agintaldiaren une honetan?

Jarraitu ditzatela gertutik Udaletxetik sortzen diren ekimenak eta egiten dugun lana, baita alkateak egiten duena ere. Horretarako gaude, horretarako hautatu gaituzte. Eta, aldi berean, norberak ahal duen neurrian, anima daitezela partaide aktibo izatera. Elgoibarrek eginkizun asko dauka, baina baita gauza on eta eder asko ere elkarrekin bizitzeko eta disfrutatzeke. Ni neu, eta gobernu-taldea osatzen dugunok, horren alde beti.

"No hay nada como trabajar por tu pueblo; estoy comprometida con llevar a cabo todos los proyectos que tenemos por delante"

Entrevista a la alcaldesa Maialen Gurrutxaga sobre sus primeros 100 días en el cargo

.....

Maialen, ¿cómo se encuentra en estos momentos en los que ha cumplido tus primeros 100 días como primera alcaldesa de Elgoibar?

La verdad es que bien. Con ganas y contenta. Tenemos muchas cosas que hacer y los cien primeros días son la mejor expresión de ello. Ha sido una época intensa, llena de retos y oportunidades. Estamos consolidando los proyectos que tenemos entre manos y planificando los de futuro. El apoyo ciudadano, la fuerza del grupo municipal que formamos y el impulso recibido de los agentes sociales no hacen sino reforzar mi compromiso de alcaldesa. Como he dicho, estoy muy comprometida e ilusionada con la marcha del inicio de esta Legislatura.

¿Cómo ha sido su primera toma de contacto con elgoibarreses y asociaciones?

Ha sido muy enriquecedor. Desde el primer día, mi equipo y yo hemos estado escuchando a las y los vecinos y asociaciones de Elgoibar. Hemos mantenido reuniones con diferentes colectivos para entender sus necesidades, inquietudes y propuestas. La acogida y el apoyo que hemos recibido han sido fundamentales para avanzar en nuestro trabajo y en el Plan de Legislatura.

Vuestro comienzo coincidió con las inundaciones de la zona. ¿Cómo abordaron esta situación?

Desde el primer momento activamos el dispositivo municipal de emergencia y colaboramos con los servicios de emergencia y los vecinos afectados. La respuesta de la comunidad fue ejemplar, y en momentos difíciles nos demostró



la fortaleza y solidaridad del Elgoibar. Aprendimos mucho de esta experiencia y seguimos reforzando nuestro compromiso con la seguridad y el bienestar de toda la población.

Usted prometió un enfoque basado en la escucha y el compromiso. ¿Cómo va a cumplir esos deseos durante su mandato?

Sí, no hay otro camino. Afrontar los problemas que tenemos, definir proyectos para consolidar nuestro municipio, reforzar la colaboración de los

agentes sociales y fomentar el compromiso de los responsables municipales... En ello estamos ahora, analizando, debatiendo y concretando el Plan de Legislatura 2023-2027. Lo presentaremos en breve a la ciudadanía.

¿Nos puede adelantar algo sobre los presupuestos municipales que están preparando?

Los presupuestos son básicos para hacer realidad año tras año las aspiraciones y los proyectos de legislación. Estamos trabajando a destajo en la

definición de los presupuestos. Se trata de responder eficazmente a nuestras necesidades, retos e ilusión como pueblo. El centro Errezabal, el proyecto del puente King-Kong, las infraestructuras deportivas, los servicios sociales, las políticas de igualdad, la juventud, el uso del euskera, el nuevo ambulatorio, etc. son proyectos para dar una respuesta equitativa a las necesidades de la ciudadanía.... Tenemos muchas tareas entre manos y los presupuestos de 2024 serán el reflejo de todos los temas que mejoren nuestro carácter de pueblo y la vida de las y los elgoibarreses.

Ha mencionado proyectos estratégicos como la residencia Errezabal, el ambulatorio y la renovación del puente King Kong. ¿En qué situación se encuentran estos proyectos y cuál es su visión de futuro?

Son proyectos ambiciosos y complejos. Proyectos que extienden la identidad y el atractivo de Elgoibar a toda la comarca. El centro Errezabal que va a consolidar nuestra red propia de servicios sociales ya tiene su cronograma y está firmado el contrato de inicio de obras. Por otro lado, estamos trabajando intensamente con el Gobierno Vasco en la tramitación del proyecto del nuevo ambulatorio (hemos firmado el convenio). Los trabajos de renovación del puente King-Kong avanzan y el proyecto de la segunda fase también está redactado... Como te decía antes, tenemos muchas tareas entre manos. Dentro de poco presentaremos el Plan de Legislatura 2023-2027 y los presupuestos 2024 serán la expresión de los proyectos que tenemos entre manos.

¿Dará paso el ambulatorio actual a las viviendas sociales?

Sí, sí, estamos trabajando intensamente con el Gobierno Vasco en la ejecución del proyecto del nuevo ambulatorio y, en ese camino la creación de viviendas de alquiler social para jóvenes es uno de los objetivos de este grupo municipal. Es más, el fomento de las ayudas al alquiler y el alquiler protegido ha sido una de nuestras iniciativas y lo seguirá siendo, sobre todo para los jóvenes, para que tengan oportunidades de empezar a construir a tiempo su propio proyecto de vida en el municipio.

¿Tendrá especial importancia la movilidad en esta legislatura?

Sí. Tanto como hasta ahora. Por ejemplo, estamos estudiando el servicio de Herribusa para ver en qué podemos mejorar. Otro tanto con el servicio de taxi nocturno. Sabemos que la ciudadanía hace una valoración positiva y tenemos que seguir en ese camino para aumentar el uso colectivo y la seguridad.

Y, claro, ahí está toda la renovación del puente King-Kong para mejorar la accesibilidad en el barrio de Urazandi, que también tendrá un ascensor. También estamos trabajando la idea de construir un ascensor en lugar de las escaleras de Artekale. Asimismo, junto a la intención de seguir mejorando los caminos rurales, también está avanzado

el proyecto de creación del bidegorri hasta Altzola, con nuevos paseos e itinerarios peatonales.

¿Y sobre el empleo?

Como alcaldesa, mi punto de vista es este: la colaboración es el eje. Colaboración con todos los agentes con capacidad de generar oferta de empleo de calidad en nuestro entorno. De la mano de las empresas y agentes industriales de la localidad, hoy sí y mañana también, una tarea a cuidar y cumplir sin descanso. La colaboración y la sinergia entre todos los agentes, incluido el Ayuntamiento, son fundamentales para consolidar la continuidad de la oferta de trabajo en Elgoibar, crear nuevas oportunidades y fomentar la economía local.

¿Cuáles son sus objetivos antes de finalizar el primer año de mandato?

Uno de nuestros principales objetivos es presentar un plan estratégico para Elgoibar que marque el rumbo de nuestra gestión. Queremos avanzar, entre otras cosas, en la nueva sede de El Pilar, en el ambulatorio y en la renovación del puente de King-Kong. Además, queremos reforzar las políticas de juventud, la cohesión social y la movilidad sostenible en el municipio.

¿Y cuáles son sus objetivos para toda la legislatura?

Cumplir con la palabra dada y mejorar Elgoibar y nuestro día a día. A lo largo de la legislatura nuestro objetivo es seguir construyendo un Elgoibar más inclusivo, sostenible y próspero. Esto incluye la ejecución de proyectos estratégicos, el fomento de la cooperación para la protección del tejido industrial y la creación de empleo de calidad, el impulso de políticas de juventud, la cohesión social y el fomento de la sostenibilidad.

¿Qué mensaje quiere transmitir a las y los vecinos de Elgoibar en este momento de su mandato?

Que sigan de cerca las iniciativas que surjan del Ayuntamiento y el trabajo que hacemos, así como el que realizo yo como alcaldesa. Para eso estamos, para eso nos han elegido. Y, al mismo tiempo, que, en la medida de sus posibilidades, se animen a ser partícipes activos. Elgoibar tiene que avanzar, pero también tiene muchas cosas buenas y bellas para convivir y disfrutar. Yo misma, y las personas que forman equipo de gobierno, siempre estaremos a favor de avanzar, pero cuidando lo construido como sociedad hasta ahora.

ETSK ALTZOLAKO TRENBIDE SAIHESBIDEA ERAIKITZEKO OBRA HASI DU

ETS arranca la obra de construcción de la variante ferroviaria de Altzola



Lanak Altuna y Uria S.A. enpresak egingo ditu. Inbertsioa 12 milioi eurokoa izango da eta 21 hilabeteko epea izango du lanak burutzeko. Beraz, 2025erako amaitzea aurreikusten da.

500 metroko luzera izango duen tunel batek egungo ibilbidea laburtuko du eta bi trenbide-pasagune kenduko ditu. Arriaga industrialdearen eta Altzola auzoaren arteko trenbidea, gaur egun, Deba ibaiaren paraleloan doa, eta meandro bat egiten du. Horrela, obraren bitartez 500 metro luzeko bide bikoitzeko tunel bat eraikiko da, horietatik 454 metro meategian eta 48 tunel faltuan, bokaleen sarreran eta irteeran.

Era berean, tunela eraikitzeak bi trenbide-pasagune kentzea ahalbidetuko du: Ganekuakoa eta Barazetakoa. Ildo horretan, trazadura aldatzeak aukera emango du etorkizunean egungo ibilbidea bidegorri gisa erabiltzeko.

Las obras serán ejecutadas por la empresa Altuna y Uria S.A. La inversión asciende a 12 millones de euros y el plazo de ejecución es de 21 meses, por lo que se prevé que este finalizo para mediados de 2025.


Un túnel de 500 metros de longitud en doble vía acortará el recorrido actual y suprimirá dos pasos a nivel. El trazado

ferroviario entre el Polígono industrial Arriaga y el barrio de Altzola en la actualidad discurre de forma paralela al río Deba, que en este punto efectúa un meandro. De este modo, las obras consistirán en la construcción de un túnel con doble vía de 500 metros de longitud, de ellos 454 metros en mina y 48 en falso túnel, a la entrada y salida de los emboquilles.

Asimismo, la construcción del túnel permitirá de facto la supresión de dos pasos a nivel, el de Ganekua y el de Barazeta. En este sentido, el cambio de trazado permitirá a futuro la utilización del trayecto actual como bidegorri.

URAK ELGOIBARKO ARRIAGA INDUSTRIALDEKO SANEAMENDU-SAREA BERRITZEKO OBRA HASI DU

URA inicia la obra de actualización de la red de saneamiento en el polígono industrial Arriaga de Elgoibar



Arriagako saneamendu-sarea eguneratzeko obrak kolektore-zati batzuetan egingo dira, eta kolektore horiek industrialdeko hondakin-urak Debabarreneko Kolektore Nagusiarekin lotuko dituzte.

Aurreikusitako gauzatzeko-aldia sei hilabetekoa da, eta inbertsioa 636.033,24 euro gehi BEZa da.

Las obras de la actualización de la red de saneamiento de Arriaga se llevarán a cabo en varios tramos de colector que conectarán las aguas residuales del polígono al Colector General del Bajo Deba.

El período de ejecución previsto es de seis meses, y el coste estimado es de 636.033,24 euros más IVA.

97 PERTSONEK EMAN DUTE IZENA URRUZUNOKO UDAL BARATZE BERRIAK ERABILTZEKO

Entre aquellos que cumplan con los requisitos establecidos se realizará un sorteo para la adjudicación de las parcelas.

Elgoibar 4B-URRZUNOKO eremuan aisialdirako gune bat garatzeko prozesuan dago, Iñiguez de Karkizano eremuko etxebizitza berrien inguruan. Eremu hori aisialdirako espazio egokiekin aberasteko asmoz, Grupo Eibar sustatzailea, Elgoibarko Udalak eskatuta, ingurune hori urbanizatzen ari da. Urbanizazio horrek, haurrentzako jolas-gune bat, kalistenia-parke bat, urmael bat eta baratze publikoak izango ditu.


Gaur egun, mahaiak eta iturri bat instalatzeko lanak egiten ari dira, baita baratzeak mugatuko dituzten hesolak jartzeko lanak ere. Datorren astean, armairuak instalatuko dira, heskaia jarriko da eta sare-jokoa muntatuko da.

Azaroan zuhaitzak landatuko dira, haurrentzako jolasak jarriko dira eta apartakalekua egokituko da.

97 solicitantes para las huertas públicas

Este proyecto contempla la creación de 30 huertas, con una superficie aproximada de 30 metros cuadrados cada una. El Ayuntamiento reservará dos de estas huertas para uso propio (números 1 y 2), dejando un total de 28 huertas disponibles (numeradas del 3 al 30). Estas huertas contarán con instalaciones comunes, como caminos y zonas compartidas.

Hasta la fecha, se han registrado un total de 97 solicitudes por parte de ciudadanos interesados en adquirir estas huertas públicas. En las próximas semanas, se llevará a cabo un análisis técnico de las solicitudes, y entre



La previsión es completar este proceso y asignar las parcelas antes de finalizar el presente año.



aquellos que cumplan con los requisitos establecidos, se realizará un sorteo para la adjudicación de las parcelas. La previsión es completar este proceso y asignar las parcelas antes de finalizar el presente año.

Cabe destacar que las licencias de uso de estas huertas tendrán una duración inicial de un año, con la posibilidad de renovarse anualmente, hasta un máximo de tres (3) años, a partir del día siguiente a la adjudicación.



2024KO UDABERRIAN HASIKO DIRA ERREZABAL GIZARTE-ZERBITZUEN ZENTROAREN ERAIKUNTZA LANAK

En primavera de 2024 comenzarán las obras de construcción del centro de servicios sociales Errezabal

Elgoibarko El Pilar ikastetxeko partze-lan kokatuko den Errezabal gizarte-zerbitzuen zentroaren eraikuntza eta kudeaketa kontratua sinatu berri dute Maite Peña Gizarte Politiketako diputatuak eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak. Proiektuaren idazketa 6 hilabetetan burutuko da eta lanak 2024ko udaberrian hasia da aurreikuspena.

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza-zerbitzu bat eta eguneko zentro bat, desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-unitate bat eta buru-nahasmendu larria du-

ten pertsonentzako beste bat izango ditu, udal jabetzako aparkaleku batez gain. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 29an onartu zuen gizarte-zerbitzuen ekipamendua eraikitzeke kontratazio-espedita, eta maiatzaren 22an Elgoibar 2023 ABEEari (Viuda de Sainz eta Biharko erakundeek osatua) esleitu zitzaion proiektua egitea, eraikitzea eta 10 urtez kudeatzea.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 88,5 milioi eurokoa da, eta horietatik 20,6 milioi euro eraikuntzara bideratuko dira. Kontratuan ezarritako epeen

arabera, obra 2024. urtearen udaberrian hasia aurreikusten da, eta egoitza 2026an martxan izatea.

Maialen Gurrutxaga alkateak konpromiso osoa erakutsi du proiektuarekiko: "kontratuaren sinadura pausu berri bat da, garrantzitsua oso. Proiektu partekatua da eta urte guzti hauetan lanean aritutako pertsona eta eragile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, batez ere, El Pilar ikastetxeko guraso elkarteko kideei, urte luzez egon baitira proiektu hau bultzatzen".

La diputada de Políticas Sociales, Maite Peña, y la alcaldesa de Elgoibar, Maialen Gurrutxaga ya han firmado el contrato de construcción y gestión del centro de servicios sociales Errezabal, que se ubicará en la parcela del colegio El Pilar de Elgoibar. La redacción del proyecto se llevará a cabo en 6 meses y la previsión es que las obras comiencen en la primavera de 2024.

Un centro que se compone de un servicio residencial y de centro de día para

personas mayores en situación de dependencia, una unidad residencial para personas con discapacidad y otra para personas con trastorno mental severo, además de un aparcamiento de propiedad municipal. El Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó el 29 de noviembre del 2022 el expediente de contratación para la construcción del equipamiento de servicios sociales, y a fecha de 22 de mayo se ha adjudicado la elaboración del

proyecto, su construcción y la gestión durante 10 años a la UTE Elgoibar 2023 (compuesta por las entidades Viuda de Sainz y Biharko).

El presupuesto base de licitación asciende a 88,5 millones de euros, de los cuales 20,6 millones de euros se destinan a la construcción. Según los plazos establecidos en el contrato, se prevé que la obra comience en primavera de 2024, y que la residencia esté en marcha en 2026.



Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 88,5 milioi eurokoa da, eta horietatik 20,6 milioi euro eraikuntzara bideratuko dira.



Adinekoentzako egoitza berriak **87 plaza** izango ditu guztira, **bizikidetzak-unitate txikiak banatuta**; horietatik **22k unitate psikogeriatrico osatuko dute**, eta plaza gehienak banakako geletan egongo dira.



Bestalde, **desgaitasuna** duten pertsonentzako **egoitza-unitateak 18 eta 22 plaza artean** izango ditu, eta **buru-nahaste larria dutenentzako egoitza-unitateak 16 eta 21 plaza artean**.



Adinekoentzako **eguneko zentro bat** ere egongo da, **40 plazarekin**.



Zentro osoak **10.500 m²** inguruko azalera izango du, eta instalazio "modernoak, irisgarriak eta komunitateari lotuak" izango ditu, inguratzen duten **berdeguneekin, egoteko gune zabalekin, jantokiekin eta kafetegiarekin**.



Bestalde, **lur azpiko aparkaleku publiko bat** ere eraikiko da, **70-80 plazarekin**.



Saioa Iraolak eta Ekhine Eizagirrek Gotzon Garate Bekaren IV. edizioaren ikerketa lana aurkeztu dute elgoibarren

Ikerketak “Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: Elgoibarko jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko pertzepzioak” du hizpide.

Materiala esteka honetan eskura daiteke:

<https://www.elgoibar.eus/zerbitzuak/euskara/#>



Elgoibar avanza con su Plan de Acogida con una guía para las y los nuevos llegados al municipio

La Guía de Acogida para las y los nuevos llegados es una herramienta esencial que proporciona información básica y recursos útiles para las personas que se unen a la comunidad de Elgoibar. Esta guía tiene como objetivo ayudar a los nuevos residentes a conocer su nuevo entorno y comunidad. Incluye información básica del municipio, servicios municipales, educación, salud, transporte, empleo y formación, trámites administrativos, cultura y tradiciones...



Elgoibarko Udalak Ordenantza Fiskalak KPIaren arabera eguneratzea onartu du

Tasa fiskalen igoera orokorra abuztuko KPIan (% 2,7) oinarrituta aplikatuko da, eta % 10eko igoera Debarreneko Mankomunitateak udalari aplikatzen dizkion zabor-tasetan.

Udala: “Egungo egoera ekonomikoa hobetzeak udalerriko finantza-egonkortasunari eusteko ahalegin bateratua, progresiboa, egitea ahalbidetzen du, elgoibartarrek kalitatezko zerbitzuak jasotzen jarrai dezaten”.



Arranca la obra de la primera fase de la remodelación del puente King Kong

La primera fase incluye una nueva pasarela sobre la N-634, el ascensor y escaleras de acceso a la misma y la pasarela de la margen opuesta de la carretera N-634 que conecta con la actual que se dirige a Urazandi.

Esta primera fase contará con una inversión de 991.840,96 euros, IVA incluido, y será ejecutada por la empresa Urbycolan, S.L. El plazo de ejecución será de 10 meses. Se prevé que la segunda fase se desarrolle de forma continuada en el tiempo.



Itziar Ajuria Garateri, Elgoibarko Ikastolari hasiera eman zion lehen andereñoari, eman diote II. Lila Saria

1962an ekin zion Elgoibar Ikastolak bere ibilbideari, euskal kulturaren aldeko mugimendua bultzatuz. Itziar Ajuria lehen urrats haietan parte-hartze aktiboa izan zuen, bertan lehen andereñoa izan zelarik.

Aurtengo ekainean zendu zen Itziar Ajuria Garate, 99 urte zituela. Bere oinordekoek hartu dute saria Lila etxearen II. urteurreneko jaiaren baitan.



47.400 personas han disfrutado de las piscinas de Mintxeta este verano

Desde 2013 hasta la actualidad este 2023 ha sido el año con mayor número de personas usuarias.

Este año, la temporada de piscinas comenzó el 3 de junio, una semana antes de lo habitual, y el cierre de la temporada se programó para el 17 de septiembre, una semana más tarde de lo previsto. El viernes 14 de julio, fue el día más concurrido con un total de 1.609 personas usuarias.



Olaizagako igerilekua sorosleen grebaren ondorioz itxita edo zerbitzu murriztean egon den denbora-tarteko abonak itzultzea onartu du Udal Kirol Patronatuak

Kalkuluak modalitate bakoitzeko abonatu guztizko kopurua hartu zuen kontuan apirilaren 22an. Guztira, 1.534 abonaturengan izan zuen eragina, eta itzuli beharreko zenbatekoa 24.111,05 eurokoa da.

Itzulketa-prozesua urriaren 1etik abenduaren 22ra bitartean egingo da. Erabiltzaile bakoitzaren ordainketak egin ziren kontu korronteetan gordailutuko dira zenbatekoak.



La alameda del balneario de Altzola cuenta con un nuevo pretil

Se ha construido un pretil de hormigón armado de 1,10 metros de altura, que garantiza la seguridad y la funcionalidad de la estructura.

Además de la reconstrucción del pretil, se han llevado a cabo mejoras adicionales en la zona, que incluyen la renovación de sumideros, la instalación de 68 metros lineales de baden y el asfaltado de 760 metros cuadrados de vía pública. Se prevé plantar siete árboles autóctonos a finales de año durante la temporada de plantación.

El presupuesto invertido en esta obra asciende a 121.794 euros + IVA.

A.

Jarduera ekonomikoa sortzeko dirulaguntza: enplegua sortzen duten enpresa-ekimen berriei laguntzea.

Subvención de creación de actividad económica: apoyo a nuevas iniciativas empresariales generadoras de empleo.

B.

Jarduera ekonomikoen ondorengotzarako dirulaguntza: enpresaren ondorengotza/txanda, pertsona fisiko edo juridikoen aldetik.

Subvención de sucesión de actividades económicas: Sucesión/relevo empresarial por parte de persona/s física/s o jurídica/s.

C.

Zabaltzeko, lekualdatzeko edo eguneratzeko diru- laguntza: enpresei, Elgoibarren barruan negozioa lekualdatu, handitu edo eguneratzeagatik.

Subvención de ampliación o traslado o actualización: a las empresas por traslado o ampliación o actualización de negocio dentro de Elgoibar.

**ESKAERAK
SOLICITUDES**

www.elgoibar.eus

Azaroaren 30^a bitarte eska daitezke ekintzailtza sustatzeko eta jarduera ekonomikoari laguntzeko elgoibarko udalaren dirulaguntzak.

Hasta el 30 de noviembre se pueden solicitar las subvenciones del ayuntamiento de elgoibar para el fomento del aprendizaje y apoyo a actividades económicas locales.

elgoibar **bizI Bona Bona** #herriarrosi

%25

%25 eko deskontua zure erosketan
* Deskontuak, 5 € eta 60 € arteko erosketatan egongo dira.

%25 de descuento en tu compra
* Las descuentos se realizan en compras entre 5 € y 60 €.

elgoibar Herriak

Kontsultatu baldintzak: www.elgoibar.eus
Consultar condiciones: www.elgoibar.eus

Erabili azaroaren 30a bitarte!



ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO